


Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Náhuat hizkuntzan Biblia

ORAINDIK ez dute itzuli náhuat hizkuntzara, hori da egin nahi dutena, eta horretarako *Ne Bibliaj Tik Nawat* izeneko webgunea (<http://nebibliaj.org>) sortu dute. El Salvadorreko pipil herriak erabiltzen du náhuat hizkuntza eta berreskuratze prozesuan Biblia itzultzea pauso garrantzitsua izango delakoan dira. Webgunean laguntza eskaini dezakeen edozeini harremanetan jartzeko deia egin diote. Lukasen ebangelioaren lehen orrialdea itzuli dute eta sarean ikusteko moduan dago.



Lukasen ebangelioaren lehen orrialdea náhuat hizkuntzara itzulita.

Galesa Parlamentuan

EUROPAKO Batzordeko Ministroen Kontseiluan lehen aldiz entzun da galesa. Galeseko ordezkariak hizkuntza horretan aritzeko aukera izango dute hemendik aurrera. Hiru milioi biztanletik %20 mintzo da galesez.

Lazarragaz hitzaldiak

ABENDUAREN 9tik 11ra, arratsaldetan hitzaldi interesgarriak dira Gasteizko Artiumen Lazarraga euskararekin, gizartearekin eta literaturarekin uztartuz.

TALAIAN

Kutxak: zartada EAJ eta CCOOri

Bilbao Bizkaia Kutxaren (BBK) eta Gipuzkoa Donostia Kutxaren arteko bat-egiteari ezetz esan zaio. Bat-egiteko ereduaren porrota ere agerian geratu da. BBK-ko batzarrak onartu egin zuen bat-egitea, nahiz eta uste baino babes gutxiagorekin izan. Kutxak ezetz esan du ordea, uste baino ezezko gehiagorekin. Bat-egitearen bultzatzaileek kolpe latza jaso dute, alegia, EAJk (ikuspegi politikotik), CCOOk (ikuspegi sindikaletik) eta EAJko kudeatzaile diren bi kutxetako lehendakaritzek.

Arrazoiak agerikoak dira. Operazioa ez da egin adostasuna zegoelako eta negoziatu zelako. Negoziazioan, bi kutxetako lehendakaritzek gain EAJk eta CCOOk baino ez dute parte hartu eta gainerako talde politikoak (EA, Aralar eta EBk gero eman zuten babesa), eta bereziki sindikatu abertzaleak, albo batera utzi dituzte. Gainera, Euskal Herriko bi probintzia baino ez zituen hartzen kontuan operazioak. Hainbat arazo politikorengatik bat-egiteak ez du aurrera egin.

Gainera, fusio naturala izatekotan beste biekina batera izan beharko luke, alegia, Arabako Vital Kutxarekin eta Nafarroako CANekin. Lan arloari eta sindikalgintzari begiratzen badiogu, CCOOekin negoziatutako proiektuak ez zion heltzen lan prekarietateari eta ezta azpikontratatuerei ere. Bestalde, larria zera da, proiektuak ez zuela kontuan hartzen negoziazio kolektiborako euskal eremua, Espainiakoari begira zegoen kutxentzat merkeagoa izango zelako eta Espainiako Estatuko sindikalgintzarentzat errentagarriagoa.

Euskal Herriaren zerbitzura egongo zen kutxa egiteko aukera galdu da. Fusio eredu horri emandako zartada despistatuta dabilzanentzako abisua da. EAJk ezin du ibili kutxen jabea balitz bezala ezta CCOOk bakarra balitz bezala, eta Madrilén balego moduan ere. Kutxak bezeroenak dira eta ordezkatzan dituzten taldeena.

Juan Mari Arregi



TALLERES

Mitxelena s.coop.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000 • Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago poligonoa, 21 • Hernani -Gipuzkoa-

© 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

XABIER LETONA

MALTZAGATIK

Kutxak, gizarte zerbitzua berraztertzeke unea

LARUNBATEAN 30 URTE beteko dira Espainiako Konstituzioa onartu zenetik eta Espainiak legitimitate arazoe-kin jarraitzen du euskal lurretan. Konstituzio horrek ahalbideratu zuen Gernikako Estatutua 1979an, baina bere garapenetik kimututako Eusko Legebiltzarrean ez da orain arte Espainiako banderarik izan modu iraunkorrean. Baina bukatu da, Espainiako Auzitegi Gorenak legeak dioena behin-betiko bete dezan agindu dio Eusko Legebiltzarrari. Txarto ari da 30 urte ondoren oraindik tamainako inposaketa sinbolikora jo behar duenak. Baina burujabetza kontuak argi uzteko unea da, eta Auzitegi Gorenak berak, urriko kontsultaren helegitean Espainiako burujabetza legez noraino iristen zen argi gogorazi zuen. Epai hori sinboloetara eramateko unea da. Noiz eta mundu interdependiente horretan burujabetza kontuak gero eta ahulago ei daudenean; noiz eta Europako Batasuna bere identitate ahula sendotzeko zein sinbolotan oinarrituko den adierazteko gero eta sutsuago ari denean.

Major Oreja-Redondo Terreros uztarriaren garaian Espainiako nazionalismoak utzitako arrastoek sendo jarraitzen dute. Hauteskunde ondoan ikusiko da zenbateraino, Patxi Lopezek gehiengoak bilatuko duela iragarri baitu, baita hauteskun-



LUIS JAUREGALITZO / ARGAZKI PRESS


deetan bigarren ateratzen bada ere. Hori da normalena, baina udan lehen izan ezik ez zela lehendakari izango zioen.

BBK ETA KUTXEN bat-egiteari ezetz esan dio azken honek. Hori da erreallitatea eta proiektu horren alde egin dutenek hobe lukete hori zergatik izan den sakon aztertzea. Autokritika publikorik ere eskertuko litzateke, berau apala izanda ere. Sinbolikoki duen garrantziaz gain, ez dago zalan-tzarik EAEko kutxen bat-egitea onuragarria litzatekeela egungo finantza merkatuetan, eta bide horretan, BBK eta Kutxaren batasuna pauso bat litzateke.

Baina lehiakortasunaren ikuspegi garrantzitsua izanik ere, funtsez-

koena da zer eratako zerbitzua eman behar duten. Finantza krisiak bete-betea zabaldu du hausnarketa horretarako atea, eta gakoa errentagarritasunean da, baina zerbitzatzen duten gizartearen errentagarritasuna norberaren aurretik jarritz. Gutxi dira azken 20 urteetako diru samur eta azkarraren liluratik ihes egitea lortu duten finantza erakundeak. Gizarte eragilean diru beharrei zentzuz eta segurtasunez erantzutea da lehen mailako erronka. Irabaztea normala da, baina urteetan pilatutako irabazi itzelen grinak asko esaten du zerbitzuaren desbideratzeaz.

ADOLFO MUÑOZ izango da aurrerantzean ELAko idazkari nagusi berria eta sindikatua borrokarako dagoela iragarri du. Mundu aberatsean txioren herrialdeko sindikalgintza egitea leporatu diote ELAri, nonbait bere arrakasta ahaztuz. Europako herrialde aberatsenetakoen artean da euskal gizarte, baina baita ere aberastan hori txartoen banatzen dutenen artean ere. ELAk neoliberalismoaren bultzadari aurre egin dio azken urte luzetan eta galdu baino ordezkartza izabazi egin du. Eskubete lan dute Muñozek eta zuzendaritza berriak, bai Jose Elorrieta moduko buruzagi karismatikoa ordezkatzeko, bai krisiak eragingo duenari aurre egiten.



13. EUSKAL DENDA


EUSKAL HERRIKO ARTISAUERENTZAREN AZOKA

DURANGO

2008-ABENDUA 5-8

MERKATU PLAZA

www.euskaldenda.info



EUSKAL HERRIKO ARTISAU ELKARTEA

